



gutunzuria

BILBOKO LETREN IX. NAZIOARTEKO JAIALDIA

KRIMENA ETA DELITUA LITERATURAN

APIRILA > 19-24

SERGIO GONZÁLEZ + LLÄTZER MOIX	JON ALONSO, GARBIÑE UBEDA, JON ARRETXE + KATIXA AGIRRE	RICARDO MENÉNDEZ SALMÓN + RAMÓN REBOIRAS
DACIA MARAINI + CECILIA DREYMÜLLER	ÁNGELA RODICIO, RAMÓN	RODRIGO REY ROSA + JUAN CRUZ
ERNESTO MALLO + LOURDES IGLESIAS	LOBO, MASOOD KHALILI, ENRIC GONZÁLEZ	

MEDIATEKA
BBK

Az
Azkuna Zentroa

AlhóndigaBilbao

www.azkunazentroa.com



BABESLE NAGUSIA

bbk=

KOLABORATZAILEAK



ENTER BIO
Tu mercado on line



metro
bilbao



ALSA

KOMUNIKAZIO LANKIDEAK

EL CORREO

SE2

KRIMENA ETA DELITUA LITERATURAN

BILBOKO LETREN IX. NAZIOARTEKO JAIALDIA

Gutun Zuria, Bilboko Letren Nazioarteko Jaialdia, berriz itzuliko da aurten, egileak aurkitzeko ezin saihestuzko bilgune gisa. Oraingoan, krimena eta delitua literaturan izango dugu hizpide, Sergio González, Dacia Maraini, Ernesto Mallo, Jon Alonso, Garbiñe Ubeda, Jon Arretxe, Ricardo Menéndez Salmón eta Rodrigo Rey Rosarekin. Horrez gain, gatazka-aldeetako adituak diren Ramón Lobo, Ángela Rodicio, Enric González eta Masood Khaliliren ikuspegiaren berri izango dugu.

Egunero-egunero, egile bat izango dugu, kazetariekin eta idazleekin solasean, eta, horrela, beren narrazioetan krimenari eta delituari nola heldu dioten, gertaera horiek -fikziozkoak nahiz errealitatean gertaturikoak- nola kontatu dituzten, eta erronka horri literarioki nola heldu dioten argituko digute. INUN kantautoreak musika-pieza txiki bat joko du, solasaldi bakoitza hasi aurretik.

Iritziak eta hausnarketak partekatzea egileen lanei, ideiei, bizitzari buruz... Gutun Zuriaren 'Irakurlearen ordua' klasiko bat da jaialdian. Idazleak eta irakurleak aurrez aurre topatzeko unea dugu. Hizketaldi bakoitzaren ondoren erakusketa-aretoa atartean sortzen den giroa ezin hobea da solastatu bitartean Bodega Urbanak eskaintzan emandako ardoarekin gozatzeko.

SOLASEAN

SERGIO GONZÁLEZ RODRÍGUEZ (Mexiko Hiria, 1950)

Llätzer Moixekin solasean

ASTEARTEA, 19

19:30



Sergio González Rodríguez idazlea, kazetaria eta Mexiko Hiriko **Reforma** egunkariako kritikaria da. Letra Modernoak ikasi zituen Mexikoko Unibertsitate Nazional Autonomoko Filosofia eta Letren Fakultatean, Carlos Septién García Kazetaritza Eskolako lizentziaduna da, eta Zuzenbideko master bat du egina Universitas Almeriense-en (Andaluzia, Espainia).

Berak idatzitako lanen artean, hauek nabarmentzen dira: **Huesos en el desierto** (2005), **El hombre sin cabeza** (2009) eta **The Femicide Machine** (2012). Mexikoko Arte Sortzaileen Sistema Nazionaleko kidea da, eta Zuzenbideko graduatu ondoko ikasketak egiten ari da. Iberoamerikako adierazpen askatasunerako **Casa América Catalunya Saria** eta **Fernando Benítez Kazetaritza Kulturalaren Sari Nazionala** jaso ditu, besteak beste.

ERNESTO MALLO (La Plata, Argentina, 1948)

Lourdes Igleasiarekin solasean

OSTEGUNA, 21

19:30



Antzerkigile eta gidoigile moduan hasi zen literaturan. Bere lehen eleberria **La aguja en el pajar** izan zen, Siruela argitaletxeak **Crimen en el barrio del once** izenarekin berrargitaratua. Bertan Lascano komisarioaren lehen kasua kontatu zuen, eta **Clarín-Alfaguara Sarian Eleberriko** finalista izan zen 2004an eta **Silverio Cañadaren Oroimenezko Saria** irabazi zuen Gijongo Aste Beltzean. Lascano protagonista duten **El policía descalzo de la Plaza San Martín** eta **Los hombres te han hecho mal** lanekin, Argentinako diktadura-urteetako ustelkeria azaleratzen duen trilogia osatu zuen.

2015ean, **La conspiración de los mediocres** argitaratu zuen, Lascanoren gaztetako ibiliren kontakizuna.

Gainera, aurtengo gaia ardatz gisa duten era askotako jarduerak antolatu ditugu, adibidez, Zinematekako 'Delitua' zikloa, 'Stockholmeko sindromea' zuzeneko talk show-a eta Ruper Ordorikaren erreztaldi-kontzertua. Kukai Dantzak emango dio hasiera Jaialdiari, dantza tradizionalaren eta abangoardiako joeren arteko harremanean sakontzen duen 'Jarraitutasuna' ikuskizunarekin. Era berean, euskal kultura sustatzen duen Loraldia Udaberriko Jaialdiarekin lankidetzan, 'Poeta Gorri Horiek!' ikuskizuna izango dugu Azkuna Zentroan, Aresti, Otero, Celaya eta Figuera poeten omenez prestatutako erreztaldia.

Gutun Zuria 2016 Jaialdiak tarte bat izango du berrelkarketak izateko. Izan ere, Wendy Guerra idazlea berriaz itzuliko da Habanatik Bilbora, bere lan berriak jendaurrean partekatzeko. Jarduera paraleloak osatzeko, bisita egingo diegu Bilboko institutu bati eta Basauriko espetxeari, edizio honetako egile batzuekin batera.

MILORRIA KULTUREN ATARIAN

Kulturen Atariak, Azkuna Zentrora etortzen diren pertsonen elkarguneak, garrantzi berezia izango du Gutun Zuriaren edizio honetan. Jaialdira etortzen direnek 'Milorria' aurkituko dute bertan. La casa del vacío-k diseinatutako instalazio honek ibilbide alternatibo bat egitea proposatzen digu, 12.000 liburutatik ateratako milaka eta milaka orriren artean. Instalazioak liburu batean sartzen zaitu, 'milorri' artean, pertsonaia, emozio, argumentu, letra, marrazki eta koloreen artean, aurretik atzerantz edo atzetik aurrerantz eginez, bakarrik edo norbaitekin, astiro edo arin. Instalazioa Kulturen Atarian egongo da ikusgai apirilaren 19tik 24ra arte.

Era berean, Jaialdia dagoen egunetan, espazio bibliografiko bat prestatuko dugu Mediateka BBK-ko hirugarren solairuan, aurtengo edizioako egileen liburuak kontsultatzeko.

DACIA MARAINI (Fiesole, Florentzia, 1936)

Cecilia Dreytmüller-ekin solasean

ASTEAZKENA, 20

19:30



Siziliako emakume aristokrata baten eta britainiar jatorriko etnologo ospetsu baten alaba izanik, Italiako literaturako dama handitzat jotzen da. Haurtzaro latzaren ostean -hiru urte igaro zituen kontzentrazio-esparru batean Japonian, bere familiak Salóko Errepublikako kide bihurtzea sinatzeari uko egin ziolako-, Erromara joan zen. Bertan **Tempo di letteratura** aldizkaria sortu zuen beste idazle gazte batzuekin, eta aldi berean kolaborazioak egin zituen beste argitalpen batzuetan.

Hirurogeigarreneko hamarkadan, lehenengo eleberriak argitaratzeaz gain, antzerkian aritu zen, eta **Teatro del Porcospino** eta emakumeek bakarrik kudeatutako **Teatro della Maddalena** sortzen parte hartu zuen. Emakumeen aurkako indarkeriaren salaketa, immigrazioa, Holokaustoa eta mafia bezalako gaiak behin eta berriz agertzen dira bere obra oparoan. Besteak beste, **Voci (Ahotsak)** eta **Il treno dell'ultima notte (Azken gaueko trena)** azpimarratu behar ditugu.

JON ALONSO (Iruña, 1958)

Katixa Agirrerekin solasean

OSTIRALA, 22

19:30



Narratzailea eta saiakera egilea-izanik, bere obra sakona, egungo gizarteko arazo batzuen salaketan murgiltzen da. **Beltzaren koloreak** (2016) saiakera argitaratu berri du, krimen-eleberrien egileei buruzko ikerketa ardatz hartuta.

SOLASEAN

GARBIÑE UBEDA (Ibarra, 1967)
Katixa Agirrerekin solasean


OSTIRALA, 22
19:30



Argia astekariko kazetaria da. 2013an **Hobe isilik** eleberria argitaratu zuen, ikerkuntza historikoaren adibide; bertan, aitonari Gerra Zibilean gertatutakoari buruzko egiaren bila dabil protagonista.

JON ARRETXE (Basauri, 1963)
Katixa Agirrerekin solasean

OSTIRALA, 22
19:30



Euskarazko autorerik irakurrietako bat izatea lortu du. Hainbat arlotan garatu du bere obra. Gero eta harreman biziagoa du irakurleekin, umorezko eleberriak, campusetan garatzen direnak, bidaia-kontakizunak eta kontagintza beltzekoak idatziz. Generolanak argitaratzeko proiektuarekin batera, kezka soziala agertzen da immigrazioaren inguruko protagonistaren bitartez: Toure ikerlari afrikarraren eskutik.

Estolda-jolasak (Erein, 2015) eta **Juegos de Cloaca** (Erein, 2015) dira bere azken nobela beltzak.

RICARDO MENÉNDEZ SALMÓN (Gijón, 1971)
Ramón Reboirasekin solasean

LARUNBATA, 23
19:30




Filosofian lizentziaduna da Oviedoko Unibertsitatetik. **ABC** eta **La Nueva España** egunkariaren eta **Mercurio** eta **Tiempo** aldizkariaren ohiko lankidea da.

Asturias para Vera bidaia-liburu berezia idazteaz gain (2010), kontakizun-liburuak eta eleberriak argitaratu ditu, besteak beste, **La filosofía en invierno** (1999), **Panóptico** (2001), **Los arrebatados** (2003), **Los caballos azules** (2005) eta **Trilogía del mal** izeneko -hau da, **La ofensa** (2007), **Derrumbe** (2008) eta **El corrector** (2009)-. Orain dela gutxi **Niños en el tiempo** (2014) eman du argitara. Bost hizkuntza baino gehiagotara itzuli dira bere lanak.

RODRIGO REY ROSA (Guatemala Hiria, 1958)
Juan Cruzekin solasean

IGANDEA, 24
19:30



Bere herrialdean Medikuntza ikasketak utzi ostean, New Yorkera joan zen, eta Zinema ikasketak egin zituen. Marokora egin zuen lehenengo bidaian, sei asteko literatura-tailerra osatu zuen Paul Bowles idazlearekin, eta Tanger-en gelditu zen denbora baterako. Han zegoela, Bowlesek ingelesera itzuli zizkion lehenengo hiru lanak, eta, horri esker, ezagutzera eman ahal izan zuen bere lana mundu anglosaxoian. Bakanen bat aipatzearen, honako hauek dira bere libururik nabarmenetako batzuk: **La orilla africana** (1999), **Piedras encantadas** (2001), **El material humano** (2009) edo **Severina** (2011).

Rey Rosak sari eta aitortza ugari irabazi ditu bere ibilbidean zehar, esate baterako, **Guatemalako Literatura Sari Nazionala** edo **Jose Donoso Iberoamerikarra**. Adituen iritziz, gaur egungo Amerikako idazlerik onenetako bat da.



LIBURUEN AURKEZPENA ETA SINATZEA WENDY GUERRAREKIN
OSTIRALA, 22 - 12:00

Bastida Aretoa
Sarrera dohainik, gonbidapena izanez gero (jaso Infopuntuan), leku guztiak bete arte

Wendy Guerra idazlea La Habanatik Bilbora bueltatzen da espresuki bere lan berriak publikoarekin partekatzeko. Wendy Guerra 2015eko Gutun Zuria Jaialdian parte hartu zuen.

Wendy Guerraren lan narratiboa (Habana, Kuba, 1970) hamahiru hizkuntzatarara itzuli da, baina ez dago bere herrialdean argitaratuta. **Todos se van** (Bruguera, 2006) eleberria nabarmentzen da bere bibliografian. Estatu Batuetan argitaratu zuten 2012an, eta idazle latinoek urte osoan idatzitako bederatzirik onenen zerrendan sartu zuen **Latina** aldizkariak. Horrez gain, **Nunca fui primera dama** (Bruguera, 2008) eta **Posar desnuda en La Habana** (Alfaguara, 2011) eleberriak eta, orobat, **Platea a oscuras**, **Cabeza rapada** eta **Ropa interior** (Bruguera, 2009) poema-liburuak idatzi ditu. **Bruguera 2006** eta **Carbet des Lycéens 2009** sariak irabazi zituen, eta 2010ean **Frantziako Errepublikako Chevalier de l'Ordre des Arts et des Lettres** izendatu zuten.



SOLASEAN...

LLÀTZER MOIX (Sabadell, 1955)
Sergio González Rodríguezekin solasean



La Vanguardia egunkariko zuzendariordea, editorial-egilea, zutabegilea eta arkitektura-kritikaria da. 20 urte baino gehiago eman ditu kulturako kazetari-lanetan, eta, bitartean, milaka artikulua argitaratu, eta liburu hauek idatzi ditu, besteak beste: **La ciudad de los arquitectos** (1994), **Mundo Mendoza** (2006) eta **Arquitectura milagrosa** (2010).

CECILIA DREYMÜLLER (Nohn, Alemania, 1962)
Dacia Marainirekin solasean



Filologia Hispanikoan doktorea Koloniako Unibertsitatetik. Saiakera-egilea eta literatura-kritikaria da zenbait hedabidetan, esate baterako, **El País**, **Süddeutsche Zeitung** edo Alemaniako Irrati Nazionalan. Horrez gain, itzulpenak egiten ditu alemanera eta gaztelaniara, Bartzelonako Goethe Institutetako irakaslea da, eta Alemania eta Espainiaren arteko bitartekaria da orain dela ia 30 urtetik. 2014an **Confluencias. Antología de la mejor narrativa alemana** eman zuen argitara.

LOURDES IGLESIAS (Donostia)
Ernesto Mallorekin solasean



Idazlea eta zinema-gidoigilea da, eta zenbait filmetan hartu du parte, besteak beste, **El Club de los Falsos Recuerdos** (Jesus Rigueira, 1995) edo **Extraños** (Imanol Uribe, 1998) filmetan. Zuzendari eta ekoizle ere aritu izan da, eta lan horietan aipagarriak dira **Carol, no te dispares** (2001), **Guided tour II** (2006), eta **Will it be a likeness?**, John Berger eta Juan Muñozekin elkar-lanean zuzendutako dokumentala. Estreinako narratziolana **Algas Rojas** (2008) izan zen. 2015ean **Euskadi Sioux** argitaratu zuen.

KATIXA AGIRRE (Gasteiz, 1981)
Jon Alonsorekin, Garbiñe Ubedarekin eta Jon Arretxerekin solasean



Euskal idazletza berriaren ordezkari, zenbait generotan dabilen artista da. Narratzailea, blog-idazlea eta irakaslea da. Bere azken eleberria, **Atertu arte itxaron** (2015), denbora luzez izan da liburu salduenen zerrendan. Giza izaeraren baitako misterioaz egindako gogoetak zipriztinduta hurbiltzen da gizarteko errealitatera.

RAMÓN REBOIRAS (Dodro, A Coruña, 1961)
Ricardo Menéndez Salmónekkin solasean



El Independiente egunkariko kultura-orrietako burua, **Cinemanía** eta **Rolling Stone** aldizkarietako erredaktoreburua, eta **Esquire** eta **Harper's Bazaar**-eko zuzendariordea izan da. FNAC Españaiko Kultura Ekintzako zuzendaria izan zen zazpi urtez.

Literatura-arloan, eleberrri hauek idatzi ditu: **El día de los enamorados** eta **Hazlo por mí** (Alianza Editorial-en biak), eta **Visita a un extraño** (Periférica). Poema liburu bat ere egin du: **El resto del mundo** (Lumen).

JUAN CRUZ (Tenerife, 1948)
Rodrigo Rey Rosarekin solasean



Kazetaria da, eta lan horretan dihardu **El País** egunkarian, 1976an sortu zutenetik.

Benito Pérez Armas eleberrri-saria irabazi zuen 1972an **Crónica de la nada hecha pedazos** lehenengo eleberriarekin. Hona hemen beste lan azpimarragarri batzuk: **El sueño de Oslo**, 1988an Azorín saria irabazi zuena; **Cuchillo de arena**, **La Foto de los Suecos**, **La edad de la memoria**, **Egos revueltos** eta **Contra el insulto**. Bere azken lanen artean, **Toda la vida preguntando** nabarmendu behar da, idazle handiei egin izan dizkien elkarrizketarik onenen bilduma.

PROGRAMA
GUTUN ZURIA 2016
APIRILA

ASTEARTEA 19

19:30 Inaugurazioa
Kukai Dantza ikuskizuna
'Jarraitutasuna'

Solasean ①
SERGIO GONZÁLEZ LLÀTZER MOIXEKIN

21:00 Irakurlearen ordua ②
Bilera Sergio Gonzálezekin

ASTEAZKENA 20

17:30 Zinemateka ③
Missing (1982)

19:30 Solasean ①
DACIA MARAINI CECILIA DREYMÜLLER-EKIN

19:45 Zinemateka ③
Syriana (2005)

21:00 Irakurlearen ordua ②
Bilera Dacia Marainirekin

OSTEGUNA 21

17:30 Zinemateka ③
Syriana (2005)

19:30 Solasean ①
ERNESTO MALLO LOURDES IGLESIASEKIN

19:45 Zinemateka ③
Missing (1982)

21:00 Irakurlearen ordua ②
Bilera Ernesto Mallorekin

OSTIRALA 22 ⑥

12:00 Liburuen aurkezpena eta sinatzea
Wendy Guerra
Bastida Aretoa. Sarrera dohainik, gonbidapena izanez gero (jaso Infopuntuan), leku guztiak bete arte

18:30 Loraldia 2016. Poeta Gorri Horiek! ⑤
Itziar Ituño eta Juan Ramón Madariagak, Aresti, Otero, Celaya eta Figueraren poemak errezitatuko dituzte

19:30 Solasean ①
JON ALONSO, GARBIÑE UBEDA ETA JON ARRETXE KATIXA AGIRREKIN

21:00 Irakurlearen ordua ②
Bilera Jon Alonso, Garbiñe Ubeda eta Jon Arretxerekin

22:00 Errezitaldi-kontzertua ④
Ruper Ordorika:
Izkiriaturik aurkitu ditudanak



MAHAI-INGURUA: GATAZKA-ALDEETAKO KAZETARIAK

LARUNBATA, 23 - 18:00


ÁNGELA RODICIO



Espainiako TVEko kazetaria da, albistegi zerbitzuetako nazioarteko arloan. 1990etik aurrera, mundu mailako garrantzia izan duten gertaeren informatzaile gisa aritu da, eta Ekialde Hurbileko berriemailea izan da Jerusalemen. Besteak beste, liburu hauek idatzi ditu: **La Guerra sin Frentes. De Bagdad a Sarajevo: memorias de una enviada especial** (1998) eta **Acabar con el personaje** (2005).

Orain dela gutxi **Dulcinium. El amor perdido de Cervantes** (2016) eman du argitara. **UNCA 2015 Saria** jaso du, erasotzen errazak diren Kolonbiako eta Ekuadorreko herrietako iheslariei laguntza ematen Ekuadorren egin duen lanagatik.

MASOOD KHALILI



Afganistango Errepublika Islamikoaren Enbaxadako aparteko eta ahalmen osoko enbaxadorea da. Sobietarrak afganiar lurraldetik erretiratzeko 1989an Moskun egin ziren lehenengo negoziazioetan parte hartu zuen. 2004an, Afganistango Konstituzioa idazten esku hartu zuen. Gobernu afganiarraren ordezkari gisa, munduan zehar bidaiatu du, sobietarren aurkako gerran eta talibanen aurkako gerran Afganistanen zegoen egoera gobernu askotako goi-karguei azaltzeko.

Artikulu ugari idatzi ditu tokiko hizkuntzetan eta ingelesez. Bere aita Khalilullah Khalili idazle ezagunaren poema-aukeraketa bat itzuli du, **An assembly of moths -Sitsen biltzarra-** liburuan (2013).

Edizio honetan, Gutun Zuriak azkenaldiko gerretan lekuko izan direnen testigantza jaso nahi izan du, beren borondatez ala beren lanbideagatik ikusi eta sentitutakoa kontatu dutenen aitortza.

Gatazka-aldeetako bizitzari buruzko mahai-inguruan, eskarmentu handiko berriemaile eta liburu-egile hauek hartuko dute parte: Masood Khalili, Enric González, Ramón Lobo eta Ángela Rodicio.


RAMÓN LOBO



Kazetari eta idazle espainiarra. Kazetaritzan lizentziaduna Madrilgo Unibertsitate Konplutentsetik. Hainbat hedabidetan aritu da lanean, adibidez, Pyresa agentzian, **La Voz de América**, **Expansión** eta **Cinco Días**-en.

Gaur egun, **Jot Down** aldizkariarekin eta **Ser** katearekin aritzen da lankidetzan. Lan hauek idatzi ditu: **El héroe inexistente** (1999), **Isla África** (2001), **Cuadernos de Kabul** (2010) eta **El autoestopista de Grozni y otras historias de fútbol** (2012).

ENRIC GONZÁLEZ



Enric González kazetaria da. Hainbat egunkaritan aritu da lanean, gehienbat **El País**en, 25 urtez jardun baitzuen harentzat berriemaile-lanetan Londres, Paris, New York, Washington, Erroma eta Jerusalemen. Liburu batzuk argitaratu ditu atzerrian izandako esperientziei buruz.

Gaur egun, **El Mundo** egunkariarentzat eta **Jot Down** eta **Alternativas Económicas** aldizkariarentzat lan egiten du.

LARUNBATA 23 ⑥

18:00 Mahai-ingurua: gatazka-aldeetako kazetariak
RAMÓN LOBO, MASOOD KHALILI, ÁNGELA RODICIO ETA ENRIC GONZÁLEZ ①

19:30 Solasean ①
RICARDO MENÉNDEZ SALMÓN RAMÓN REBOIRASEKIN

21:00 Irakurlearen ordua ②
Bilera Ramón Lobo, Masood Khalili, Ángela Rodicio, Eric González eta Ricardo Menéndez Salmónekina

22:00 Ikuskizuna ④
STOCKHOLMEKO SINDROMEA

IGANDEA 24

19:30 Solasean ①
RODRIGO REY ROSA JUAN CRUZEKIN

21:00 Irakurlearen ordua ②
Bilera Rodrigo Rey Rosarekin

- ① Auditoriuma -1. solairua 3€ / 2€^{1/2}
- ② Erakusketa Aretoko Ataurrea -2. solairua Hitzaldira joaten diren lagunentzat bakarrik
- ③ 4,5€ / 3,5€^{1/2} Sarrerak: Golem Alhóndiga Zinemako txarteldegian eta www.golem.es helbidean
- ④ 12€ / 10€^{1/2}
- ⑤ 5€ / 3€^{1/2}. Infopuntuan baizik ez dago salgai (informazioko gunean)
- ⑥ Apirilaren 22 eta 23ko jardueren egun osoko txartelak: 16€ / 12€^{1/2} / txartela

📖 Liburuaren Nazioarteko Eguna

Sarrerak salgai Infopuntuan (Informazio Gunea) eta www.azkunazentroa.com. Hitzaldi guztiak aldibereko itzulpena izango dute.

Ezin baduzu etorri, jarrai gaitzazu zuzenean livestream bidez. Auditoriuma beteta badago, solasaldiak -2 solairuko Bastida Aretoran jarraitu ahal izango dituzu (plaza-kopurua bete arte). 2€ / 1€^{1/2}

Adaketak egun daitezke ordutegietan

KUKAI DANTZAREN INAUGURAZIO IKUSKIZUNA

LORALDIA 2016

'JARRAITUTASUNA'

Apirilak 19 19:30 | INAUGURAZIOA
Auditoriuma

'... zazpigarren egunean, geure buruari egin genion galde: Nork egin du hau guztia?'

Gutun Zuriaren inaugurazioan, Kukai Dantzak eta Marcos Morauk dantza tradizionalaren eta abangoardiako joeren artean dauden hartu-emanen sakonduko dute.

Gogoetak planteatuz, bi lengoia garaikide eta osagarri horien arteko bide erkidean barreiatzen dira, gureari helduz, etorkizunari begira.



POETA GORRI HORIEK!

Apirilak 22 18:30
Auditoriuma. 5€ / 3€

Loraldia Jaialdiarekin lankidetzan, 'Poeta Gorri Horiek!' ikuskizuna izango dugu Gutun Zurian.

Blas de Oteroren jaiotzaren mendeurrena dela eta, diktaturako garai latzetan lagun izan zituen poetak elkartuko ditugu: Aresti, Celaya eta Figuera. Poemen eta kanten bidez, gazteleraz idatzi zuten poeta horiek ekarriko ditugu euskal unibertsoa, Arestiren eskutik. Itziar Ituño eta Juan Ramón Madariagak errexitatuko dituzte bertsoak.

MUSIKA: RUPER ORDORIKAREN ERREZITALDI KONTZERTUA

'IZKIRIATURIK AURKITU DITUDANAK'

Apirilak 22 22:00
Auditoriuma. 12€ / 10€

Ruper Ordorikak 'Izkiriaturik aurkitu ditudanak' ezohiko kontzertua eskainiko du Gutun Zuria Jaialdian, eta poema kantatuak eta dagoeneko gure gogoan abesti bilakatu diren poesiak interpretatuko ditu bertan. Ez da izango Ruperrek berak bere hitzekin ondutako kanturik. Horren lekuan, Joseba Sarrionandia eta Bernardo Atxaga bezalako idazleen poemekin sortutako kantuak entzungo ditugu, bai eta L. Anselmi, J.A. Artze, G. Aresti, D. Cañas eta beste idazle hautatuen poemetan oinarritutako kantuak ere.

Kontzertu honetan, Ruper Ordorika (gitarra eta ahotsa) Fernando 'Lutxo' Neirarekin batera (baxua eta teklatuak) arituko zaigu. Kontzertu berezia izango da, era elektrikoan nahiz akustikoan mugak gainditzeko gai den musikaria baitugu Ruper Ordorika.



IKUSKIZUNA



STOCKHOLMEKO SINDROMEAK

Apirilak 23 22:00
Auditoriuma. 12€ / 10€

Azken edizioan estreinaldia izan ondoren, aurten ere 'Stockholmeko sindromea' izango dugu Gutun Zurian. Eszena- eta idazkuntza-arloko artistek mahai-zapia eta mahai partekatuko dituzte, musika eta talk show-a zuzenean bateratzen dituen ikuskizunean. Lagunarteko afari honetan, honako hauek hartuko dute parte aurten: Wendy Guerra idazleak, Juan Echanove aktoreak, Jon Maia bertsolari, idazle eta errealizadoreak, eta ustekabez gonbidatutako bi musikaririk, bilerari soinu-banda emateko. Berbena-argiz girotutako afari honetan, eguneroko era guztietako gaiak azalduko eta eztabaidatuko dira, umorez eta itzulingururik gabe, hausnarketa horiek musikaz lagunduko dituzten zuzeneko kantuekin batera.

Ana Arias aktorea izango da zeremonia-gidaria, gau-ekitaldi atsegin hau zuzenduko duena; eta jendeak parte hartu ahal izango du, sortuko diren gaien inguruan iritziak, anekdotak edo gogoetak eskainiz.

ZINEMA

ZINEMATEKA: DELITUA

Apirilak 20-21 eta 27-28

4,5€ / 3,5€

Sarrerak: Golem Alhóndiga Zinemetako txarteldegian eta www.golem.es helbidean

Literaturak bezalaxe, zinemak ere delituak jendartean hartzen dituen forma guztiak erakusten dizkigu. Horregatik, Azkuna Zentroko Zinematekak ziklo berezia eskainiko du Gutun Zuriaren edizio honetan, krimena, mafia eta espioitza aztertzen dituzten filmekin. Ziklo honetan, film guztiak jatorrizko bertsoan proiektatuko dira, azpitiuluz lagunduta.

Apirilak 20, 17:30 eta apirilak 21, 19:45

MISSING (1982)
Costa-Gavras. DVD 122'

Apirilak 20, 19:45 eta apirilak 21, 17:30

SYRIANA (2005)
Stephen Gaghan. DVD 125'

Apirilak 27, 17:30 eta apirilak 28, 19:00

GOMORRA (2008)
Matteo Garrone. DVD 135'

Apirilak 27, 20:00 eta apirilak 28, 17:30

POULET AU VINAIGRE (1985)
Claude Chabrol. 35 mm 110'